




### **Le monde como il va, Voltaire**

Liburu hau klasiko bat da, narrazioz osatua dago eta zinez polita da, oso. Alde batetik, liburuari izena ematen dion kontakizuna nabarmentzen da, nahiz eta “Le blanc et le noir” kontakizuna ere ez den atzean geratzen, ez horixe. Voltaire, humanista handia...

*Bravo!*



### **Métaphysique de tubes, Amélie Nothomb**

Amélie Nothomb-ekin gertatzen da txokoloatearekin bezala: beti nahi duzu gehiago. Hala ere, batzuetan azalezko sentrazio bat helarazten dizu (ikusleria handiko telebista-saioek eragin ohi duten azalergia-sentrazio hori bera...). Baina niri gustatu egiten zait. Berezia, garaikidea, zolia da; badaki umoreaz baliatzen, askotan nahiko azidoa izan ohi den umore-mota bat erabili ohi du (nahiz eta zenbaitetan zeure buruari geldetzen diozun ea liburua non geratu den, hainbeste ateraldiren ondoren...). Benetako gauzak kontatzeko era surrealista bat dauka, egilea nahastezin bilakatzen duelarik. Orain arte liburu batzuk irakurri dizkiot, eta ziur nago besteren bat

pasatuko dela nire eskuetatik oraindik...



### **On ne meurt qu'une fois et c'est pour si longtemps, Patrick Pelloux**

Liburu hau zinez jostagarria da eta daukan planteamendua zeharo originala da. Larrialdietako sendagile frantziar ospetsu bat dugu egilea, eta liburu honetan 30 pertsonaia historikoren baino gehiagoren azken uneak (heriotzak, hil-zoriak, e.a.) ikertu eta atal laburretan bildu dizkigu, frantziarrak dira pertsonaiarik gehienak, baina ez denak, eta era askotako pertsonaiak dira: erregeak, musikariak, idazleak, politikariak, iraultzaileak, militarrek, artistak, zientzialariak, komikoak, edota baita Saturnino Ahatea ere. Umorea, gizatasuna, pasadizio historikoak, pertsonaien gorabeherak... Bizkor irakurtzen da, eta pozik uzten zaitu. Euskaraz salmenta politikak izan litzake, nik uste...